

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



Atsegindegi 'berria' martxan, Inauteriek

HERNANI
OBRAK

6



Puntu bana, Hernaniko bi talde nagusiek

HERNANI
FUTBOLA

8



Martxoaren 8a begibistan, deia egin du Euskal Herriko Bilgune Feministak

URUMEA
M8

6



Urumea bailara, zirku erraldoia!

Sekulako giroa izan zen atzo ere, Goizuetako eta Hernaniko Inauterietan. Sardinaren ehorzketarekin agurtuko dituzte hernaniarrek gaur, eta zahagiak dantzan jarri, goizuetarrek.

2-5

Aimar Olaizola, Binakakoaren final laurdenetan azkenean


URUMEA
PELOTA

8

AGENDA

GAUR : Ipuin kontaketa
17:30 : Lur Kortaren
eta : eskutik
18:00

HERNANI



GAUR : Ohiko Plenoa,
19:00 : udaletxeko
pleno aretoan

HERNANI

GAUR : Ohiko Plenoa,
19:00 : udaletxeko
areto nagusian

ASTIGARRAGA

· *Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa* ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere
eskuragarri zure hitzordua
hartzeko

Negar malkotan agurtuko dituzte Inauteriak Hernanin, goizuetarrek zahagiak dantzara atera bitartean

Bukatu dira Inauteriak, hernaniarrentzat. Sardina ehortzita agurtuko dute festa, 18:30etan. Goizuetan, berriz, egun osorako dute oraindik. Mozorroak izango dira protagonista.

GOIZUETA-HERNANI INAUTERIAK

Azken eguna dute gaurkoa Hernaniko Inauteriek. Arratsaldeko 18:30etan Plazatik aterako dira Hernani Musika Eskolako dultzaineroak, atzetik penatuta herritarrak dituztela, sardina ehortzeko. Kale-buelta eginda, Plazan erreko dute.

Goizuetan, berriz, oraindik badute festarako aitzakia. Gaur mozorroak ibiliko dira herrian zehar, eta 17:30etan zahagi dantzari ekingo diote. DJa eta afaria ere aukeran izango dituzte, gero.

Honekin, Goizuetan ere bukatu egingo dira Inauteriak. Baina larunbateko Kontuen Eguna-rekin luzatuko dituzte. **K**

INAUTERIEN EGITARAUA

GOIZUETA

GAUR

09:00 Mozorroen gosaria.

10:00 Mozorroak dantzan herriko kaleetan zehar.

14:30 Mozorroen bazkaria.

17:30 Zahagi dantza Motzanen hasita.

18:30-21:30 DJ Txoko.

22:00 Mozorroen afaria.

LARUNBATA - KONTUEN EGUNA

13:00 Poteoa 'Ilgandea' txaragarekin.

14:30 Mozorroen bazkaria.

17:30etatik aurrera 'Ilgandea' txaranga herrian zehar.

HERNANI

GAUR

18:30 Sardinen ehorketa



Mozorroen artean gordeta, inoiz baino azeriagi ibili zen atzo, azeria, Hernanin.



Zirkuko artista eta pertsonaia miresgarriek hartu zuten atzo, Goizueta. Argazkia: Felix Loiarde.



Animalien arteko dueloan, zezena gailendu zitzaion ardiari!

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña,
I. Goñi, L. Goñi, B. Los
Arcos, A. Moreno, J. Osa,
M. Ramirez de Alda eta
J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Euzko Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

TOKIKOM





Afrikako sabana ekarri zuten Ttarlako dantzariak Hernanira.



Inmakulada ikastetxeko ikasle eta gurasoek Mexikoko Hildakoen Eguna ekarri zuten gogora.

Sabanako animaliak eta Mexikoko hildakoak, Inauterietan

HERNANI KONPARTSAK
Inmakulada ikastetxeko ikasle eta gurasoek eta Ttarla dantza taldeko dantzari, irakasle eta

gurasoek kolorez bete zituzten kaleak igandean, konpartsekin. Mexikoko Hildakoen Eguna ekarri zuten gogora aurrenekoek,

eta Afrikako sabanako animalia guztiak gonbidatu zituzten bigarrenek. Dantza alaiak egin zizkieten herritarrei.



Tilosetako kioskoan eman zuten kontzertua igandean, Demode Quartet laukoteak.

Tilosetan kantari, jarraituz Demode Quarteten musikari

HERNANI EMANALDIAK
Festaren ekuadorrean, Demode Quartet laukotea igo zen igande arratsaldean Tilosetako kioskora, Inauterietako giro onari musika gehiago jartzera. Joli Pascualena, Mikel de la Fuente, Iker Huitzi eta David Roscok osatutako laukoteak, Patxi Barcoren zuzendaritzapean, hainbat kantu ezagunen bertsio dibertigarriak kantatu zituzten oholta gainean, eta hernaniar guztiak dantzan jarri zituzten; baita koroak egiten ere, hainbat alditan!



Hernaniko parakaidista birala egin da Twitterren.



'Up!' pelikulan bezala, globo koloretsuek zeruraino ere eraman zuten Inauteri giroa.



Erromeria ere inoiz baino koloretsuagoa izan zen, mozorroak dantzara aterata.

Zein ote, hernaniarren arteko mozorrorik onena?

HERNANI MOZORROAK
Imaginazio faltarik ez da izan Hernaniko Inauterietan. Bereziki, larunbatean, makina bat mozorro original, alai eta

dibertigarri ikusteko aukera izan zen. Hispanitate egunean istripua izan zuen parakaidista ere kaleetan barrena ibili zen, oraingoan, lurrean, seguruago.

Sare sozialetan egin du hegan, birala egin baita haren argazkia. Baina gehiago ere izan ziren: animaliak, pelikuletako pertsonaiak, klasikoak...

**KRONIKAK
KAZETARIA
BEHAR DU
AMATASUN BAJA
DELA ETA**

Bidali zure CV-a,
otsailak 29ra arte:

kronika@kronika.eus
Dobera Euskara Elkarte
Larramendi 11 behea
20.120 HERNANI

Kronika

**DO
BE
RA**

ESKATZEN DA:

/ Euskara ondo menperatzea, hitzez zoin idatziz.
/ Lantaldean aritzeko gaitasuna.
/ Iniziatiba eta empatia.
/ Kazetaritza edo komunikazio ikasketak izatea.

/ Aktualitatearen jamaipena egitea.
/ Kazetari lanetan esperientzia.
/ Maketatzeko, eta argazki eta bideoak editatzeko programen ezagutza.
/ Sare sozialak menperatzea.

BALORATUKO DA:

/ Urumea bailara ezagutzea.
/ Doberako bazkide izatea.
/ Tokiko hedabideak ezagutzea.

ESKAINIKO ZAIJO:

/ Kontratu: amatasun bajari dagokiona.
/ Eginkizunari dagokion soldata eta lan baldintzak.

Baldintzak betetzen dituzien artean probak egin ondoren bat aukeratu da.



Ergobiatik Astigarragarainoko bidea dantzan egin zuten Inude eta Artzainek.

Astigartar berririk ez da faltako, datozen urteetan!

ASTIGARRAGA INUDE ETA ARTZAINAK Orain gutxi landatu zituzten astigarrak herrian, iaz jaiotako haurren omenez. Eta igandean, Inude eta Artzainek egin

zuten buelta Ergobiatik Astigarragaraino, aurten jaiotako astigartar berriak aurkezteko. Dantzan egin zuten bidea, eta osasun azterketak pasata,

agintarien aurrera eraman zituzten, astigartar gisa izena emateko. Egun seinalatu honetan herritar gehiago ere bildu zitzaizkien.



Andre gobadariak makina bat lan izan zuten, jaioberrien arropak garbitzen.



Jaioberriez gain, ume haundixeagoak ere baziren, bihurri askoak!



Sufragistek okasio berezi hau aprobetxatu zuten beren mezua mundu osora zabaltzeko, hizkuntza guztietan.



Gertutik jarraitu zituzten gurasoek, Inudeen ibiliak.



Iraganak eta etorkizunak bat egin zuten Astigarragako Inauterietan.

Iraganetik etorkizunera, mozorroetan

ASTIGARRAGA MOZORROAK

Superheroiak, animaliak, bake-ro eta rockeroak edota astronautak ibili dira asteburuan, besteak beste, Astigarragako Inauterietan. Orainaldiko eta etorkizuneko irudiek bat egin zuten iraganekoekin ere. Izan ere, igandean Inude eta Artzainen konpartsak hartu zuen protagonismoa, eta ez ziren falta izan garaiko andre gobadariak, emakume sufragistak, agintari eta elizako ordezkariak, danbor-joleak, lorezainak, gozo saltzaileak...



Lorezainek apaindu zuten herria, haur jaioberrien omenez.



Paperean ondo sartuta aritu ziren batzuk, atzoko zirkuan.



Pottokiek ere izan zuten haien protagonismoa.

Hollywoodeko izar txikiek hartu zuten Goizueta, ostiralean

GOIZUETA XALTO ESKOLA
Pottoki urdinak, zuri-beltze-ko dalmatak edota Mexikoko Hildakoen Eguneko kalaberak, Harry Potterren magiak... Denek

egin zioten bisita Goizuetari, ostiralean. Hollywoodeko izar txiki haundiek Xalto eskolan egin zuten bat, eta herriko kaleetan barrena ere ibili ziren, herri-

tarrak agurtzeko. Inauteriak bazetoztela gogorarazi zieten horrela, igandean ekin baitzioten gaztetxoek zahagi dantzari, atzoko zirkuaren aurretik.



Dalmata zuri-beltzek ez zioten beldurrik izan Cruella De Vil gaiztoari.



Hogwartseko lagunekin etorri zen Harry Potter.



Gaztetxoek ederki dantzari zuten zahagia igandean.



Negar eta irri egiteko aukera izan zen atzoko zirkuan.

Helduek erreleboa, gazteei

GOIZUETA ZAHAGI DANTZA
Mozorroak gaur ibiliko dira herrian barrena, Zahagi Dantzan ez dira izanen kalera

aterako diren aurrenak, hala ere. Gaztetxoek erakutsi zuten igandean, ederki asko ikasiak daudela. Erreleborik ez da falta.

Magiaz betetako zirkua, zabaldu malko, irri eta ujua

GOIZUETA ZIRKUA

Izaki misteriotsuak, artista paregabeak, mimo tristeak edota pailazo bromazale alaiak herrian barrena ibili ziren atzo, egun osoan zehar. Zirkua hartu zituen Goizuetako kaleak, eta dantzan eta musika alaiarekin agurtu zituzten herritarrak zirkuko pertsonaia guztiek. Konpartsan kaleetan barrena ibili ondoren, bapo bazkaldu zuten, eta tailer, txokolatada eta trikitalariekin gozatu zuten arratsaldean, mo-zorroei paoa eman aurretik.

«Jendarte eredu hau bizigaitza da gehienontzat, batez ere emakume eta genero disidenteontzat»

Euskal Herriko Bilgune Feministak martxoaren 8rako deialdia egin du eta aurten ere «kaleak beteko ditugu eredu kapitalista neoliberal honen aurka. Emakume langileen autoantolaketa beharrezkoa da pasibotasuna gaindituz».

URUMEA M8

Martxoak 8rako deialdia egin du Euskal Herriko Bilgune Feministak. Aurreko otsailaren 18an Euskal Herriko Mugimendu Feministak borroka egun baterako deia egin zuen Iruñean. Aurten berriro ere kaleak beteko dituztela adierazi dute «jendarte eredu hau bizigaitza dela pertsona gehienontzat, batez ere emakume eta genero disidenteontzat, eta jasanezina planetarentzat» adierazteko.

Berdintasun formaletatik haratako, emakume, trans eta bolleraren antolaketa aurtengo gai zentrala izango dela adierazi dute. Izan ere, «neoliberalismoak hain eragin handia duen mundu honetan, indibidualismo basati eta atomizatua sustatzen duen mundu honetan, komunitate feminista konprometitua» behar dela kaleratu

dute eta horretarako «kaleetan talde, kolektibo eta asanbladetak antolakuntza feministaren bidez ere presioa» egin behar dela feminismotik.

«Kapitalismo basatiari aurre egiteko»

«Borroka feminista beharrezkoa da oraindik, gaur duela urtebete bezala, horregatik joan ginen Hego Euskal Herrian urtarriaren 30ean greba orokorrera. Greba feminista emakume langileak antolatzeko bitarteko bat gehiago da, ez da helburu bat, beste eredu sozial eta produktibo bat salatzeko eta aldarrikatzeko tresna bat baizik, eta ahalegin eraldatzaile horretan jarraitzen dugu».

Feminismoan emakumeen autoantolaketa beharra azpimarratzen dute. «Komunitate feminista konprometitua erai ki behar dugu, sare sozialek



Iruñean egin zen aurkezpena, aurreko astean.

eragiten duten pasibotasuna gaindituz. Kaleetan eta talde, kolektibo eta asanbladetak antolakuntza feministaren bidez ere presioa egin behar dugu».

Arrazoi horiengatik guztientzat, «martxoaren 8 honetan suntsitzen gaituen kapitalismo basatiari aurre egingo dion, eta xenofobia gure sozializazioaren parte bihurtuz eskubideen zati-keta proposatzen duen arraza-

keria instituzionala apurtzeko borrokatuko duen feminismoa

aldarrikatuko dugu», adierazi du Bilgune Feministak. **K**

EGITARAUA

MOBILIZAZIO NAGUSIAK

NAFARROA

12:00: Mobilizazio deszentralizatuak herri eta auzoetan.

18:00: Mobilizazio zentralizatuak eskualdeetan.

GIPUZKOA

12:00: Mobilizazio deszentralizatuak herri eta auzoetan.
18:00: Mobilizazio zentralizatuak.

Atsegindegiko berrikuntzak amaituta erabilgarri dago herritarrentzako

Elkarteek erabili dezakete eta materiala gordetzeko bilgunea eta harmailak daude. Argiztapena eta akustika hobetu dira.

HERNANI UDALA

Atsegindegi berriz ere erabilgarri dago udazkenean, urriko lehenengo egunean, hasi ziren berrikuntza lanak amaitu eta gero. Guneak orain arteko erabilera bera izango du, hau da herritar guztiei irekia eta elkarrekin antolatzen dituzten ekin-tzetarako egokitua.

Obrari esker espazioa argiago eta akustika hobetzea lortu da. Jatorrizko egitura mantendu da baina materiala aldatu da. Polikarbonatozko geruza jarri da tramo zentraletan, argia pasatzen uzteko; era berean, akustika hobetzeko esku-hartze



Atsegindegi estali da alboetan.

batzuk egin dira. Argiztapena ere berritu da, eta energetikoki eraginkorragoak den LED sistema jarri ere bai.

Estalkia alboetan zabaldu da eta babes espazioak alboetan (materialarentzako biltokiak eta publikoarentzako harmailak) sortu dira. Iparraldeko fatxadan babes sistema labainkorra ezarri da (gillotinaren modukoak) eguraldiaren arabera irekita edo itxita eduki ahal izateko. Alde honetako baranda kristalezkoa da argi naturala ahalik

eta hoberen aprobetxatzeko. Ez da aurreikusten beste harmaila handiagorik jartzea.

Pertsianei dagokienez, goian egongo dira normalean eta, ekitaldiren bat dagoenean, pertsianak jaisteko aukera dago euria, haizea edo hotza dagoenean. Biltegi batean daude interruptoreak eta udal langileen edota elkarte antolatzailearen ardura izango da horiek manejatzea (eguna eta orduaren arabera). Ez da areto bat, plaza baizik, babes-tua, baina irekia. **K**

Astigarragan eta Hernanin, gaur Plenoak

Biak 19:00etan hasiko dira. Hernanin, hutsik dauden etxeak alokatzeko proposamena landuko da, eta Astigarragan, martxoaren 8ari buruzko adierazpena.

HERNANI-ASTIGARRAGA PLENOAK

Hileko azkeneko asteartea da gaur, eta beraz, Plenoa egingo dute Hernani eta Astigarragako Udalek, ohiko deialdian. Biak izango dira 19:00etan. Hernanin, landuko dute hutsik dauden etxeak 35 urte azpiko herritarrei alokatzea ahalbidetzeko proposamena, OinHerri Herri Hezitzailea sarean parte hartzeko akordioa, eta zenbait ordenantza fiskalen aldaketa, besteak beste.

Berdinsarera atxikitze proposamena, Plenora

Eta Astigarragan, aztergai



Xabier Urdangarin, Pleno batean.

artean daude, besteak beste, Hirigintza Aholku Batzordearen arautegia, Berdinsarera atxikitze proposamena, martxoaren 8ko adierazpen instituzionala, edota Erregistro Zibilaren zerbitzua pribatizatu eta murriztearen kontrako mozioa. Bi Plenoak galderen atalarekin amaituko dira. **K**

Gipuzkoako baserri guztiek banda zabal ultraazkarra izatea helburu

Azpiegitura hori landa eremu osora zabaltze aldera 2023rako, Foru Aldundiak lan saioa egin zuen lurraldeko 85 udal ordezkariarekin.

ASTIGARRAGA HERNANI ALDUNDIA

Foru Aldundiak antolaturik eta Gipuzkoako udalei zuzenduta, banda zabal ultraazkarraren inguruko lan jardunaldia egin zen Tolosako Udaleko Pleno Aretoan pasa den astean. Markel Olano Diputatu Nagusia eta Imanol Lasa, Sustapen Ekonomikoko, Turismoko eta Landa Eremuko diputatuarekin batera 85 ordezkari bildu ziren. «Konpromiso irmoa» berretsi zuen Aldundiak banda zabal ultraazkarra Gipuzkoako landa eremura zabaltzearena.

Ahalegin horretan, deialdi

berezia abiarazi zuen Aldundiak 2018. urtean eta bide beretik sakonduz, asmo haundiko helburua ezarri du Diputatu Nagusiak legealdi honetarako: 2023ko, Gipuzkoako landa eremuko baserri guztietara banda zabalarrekin heltzea, baserria edonon egonik ere, eta diskriminaziorik ez egitea, ez teknologia mailan, ezta prezioan ere.

Landa eremuko biztanle gehienek hiriguneetan bizi diren pertsonen dituzten bizitzeko eta lan egiteko baldintza berak izatea bilatu nahi da, «hiriguneen mailako zerbitzu eta ongizatea sustatuz, eta landa

ingurunea erakargarri izan dadin, biztanlegoari eutsiz. Horrek esan nahi du, besteak beste, Errezilen bizi denak Donostia-ko Avenidan bizi denaren pareko internet konexioa edukitzea. Horretan dihardugu».

Banda zabal ultraazkarra landa ingurune osora zabaltzeko, ordea, lan haundia dago egiteke oraindik. Diputatu Nagusiak emandako datuen arabera, herri txikietan oraindik 1.200 baserri inguru gelditzen dira konektatzeko, eta gainontzeko herrietako landa ingurunean, berriz, beste 4.000 baserri inguru. Aldundiak «anbizioz» jokatuko duela iragarri du, datozen urteetan esparru horretara iristeko, eta aditzera eman du aurtun bertan bi deialdi aterako dituela helburua betetzeko. **K**



'Eye Benches III' lana ikusgai egongo da Chillida Lekun.

Udaberriko egitaraua argitara, Chillida Lekuk

Nabarmenezkoak dira 'The Shadow Belongs to Light' eta programari ekingo dion 'Eye Benche III' eskultura.

HERNANI KULTURA

Chillida Leku museoak udaberriko egitaraua aurkeztu berri du otsailean eta datozen hilabeteetarako egitarauan *The Shadow Belongs to Light* nabarmen tzen da, Eduardo Chillidaren grabatuen hil ondoko seriearen erakusketa. Museoak «obra gon-

bidatua» programari ekingo dio martxoan Louise Bourgeoisen *Eye Benches III* eskulturarekin.

Granito beltzeko bloke bakar batetik zizelkatutako bi begiz osatutako eskultura da, eta martxotik aurrera Chillida Lekuko zelaiaren baso-zatian egongo da ikusgai, uda amaitu arte. Bestetik, martxoaren 27ra arte *Oyarak* lana dago ikusgai. Tituluak *Oyarak* lanari egiten dio erreferentzia; 1954an sortu zuen burdinazko eskultura hori Manuel Illarramendiren Hernaniko sutegian, eta Zabalaga baserriaren beheko solairuan erakusten da. **K**

Etxe hutsen jabeentzat zuzendutako bilera informatiboa egingo da bihar

Etxebizitza hutsak alokairura bideratzeko Bizigune programaz ariko dira udaletxean 18:30etatik aurrera.

HERNANI UDALA

Bizigune programa, etxebizitza hutsak alokairura bideratzeko bihar bilera informatiboa egingo da programaren inguruan, etxe hutsen jabeek zuzenduta, 18:30etan udaletxean. Bizigune programaren bidez etxe hutsak alokairura bideratzen dira.

Eskaintzen diren abantailak azalduko dira besteak beste Horretarako, etxe huts horien jabeek «abantailak eskaintzen zaizkiete». Batetik, «etxe hutsaren errentamenduari ez



Udaletxean aurkeztu zuten aurreko astean etxebizitza mahalean.

kezkatzeko, 6 urteko akordioa sinatzen dute etxe jabeak eta Jaurlaritzak, eta azken hau arduratzen da kudeaketa lanez, baita mantentze lanetaz ere».

Era berean, «jabeek bertan izango dituzte 6 urte horietan errentaren diru-sarrerak, baita etxea hutsik geratzen bada ere». Gainera, «etxea bizitzeko moduan ez dagoela-eta, obraren bat egin behar izanez gero, diruz laguntzen da jabea, eta interesik

gabeko maileguak eskaintzen zaizkio». Horrez gain, «energia ziurtagiria lortzeko tramiteekin ere laguntzen du programak».

Programan parte hartzeko erabakia etxe hutsen jabeena da, eta Udalak ezin du tartean sartu, baina parte hartzerari animatu nahi ditu. «Alokairu soziala indartzeko helburuarekin, 500 bat gutun bidali dizkiegu, hutsik daudela kalkulatu du-gun etxeen jabeek». **K**

EGURALDIA

GAUR

Eguraldia erabat aldatuko da; goizean zehar iritsiko den fronte batek euria utziko du eta tenperaturaren jaitsiera nabarmena eragingo du.
Min. 8° / Max. 13°

BIHAR

Temperaturak beherantzko bideari eutsiko dio eta kostaldean 10-11 °C-tik ez dira pasako maximoak eta barnealdean 7-9 °C artean geldituko dira.
Min. 8° / Max. 11°

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Eguez: **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353

'Baipasa' irratsaioan gaur Ainhua Jauregi

URUMEA IRRATIA

Euskadi Irratiko *Baipasa* programan Kronikak hartuko du parte gaur. 17:30etatik aurrera Ainhua Jauregi izango da gonbidatua eta minbiziarekin bere esperientziaren berri jaso duen *Parte de mi Vivencias personales en mi lucha contra el linfoma de Hodgkin* liburuz ariko da bertan.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



Eibar bigarrenaren kontra berdindu zuen Hernanik, Euskal Ligako partidua.

Berdinketa bana, zapore ezberdinarekin

Puntu ona lortu zuen Hernanik Euskal Ligan, Eibarren kontra (1-1); eta enpate gazi-goza Ohorezko Erregionalek, Zarautzen (2-2).

HERNANI FUTBOLA

Berdindu egin dute Hernaniko bi talde nagusiek, asteburu honetan. Baina zapore ezberdineko puntua izan da bakoitzarentzat. Emaizta ona izan zen Euskal Ligako nesKentzat, Eibar bigarren sailkatuaren kontra lortu baitzuten berdinketa, Zubipen (1-1), Lizasoren golari esker. Pun-

tu horrekin, zortzigarren postura igo da Hernani, Barakaldori aurrea hartuta. Toki erosoan daude txuri-berdeak, azkeneko postuak urrun utzita.

Gazi-goza izan zen, aldiz, Ohorezko Erregional mailako mutilek lortu zutena, Zarautzen kontra (2-2), Mikel Lizarazuren eta Navaroren golek. Galduta jarraitzen dute txuri-berdeak, baina zazpigarren garaipenaren bila joan ziren Zarautzera. Edozein kasutan, igoeraren lehian sartuta dago, 47 punturekin hirugarren. 49 dauka Eibarrek eta 48 Anaitasunak, baina partidu bat gutxiago daukate, beraien artekoa. **K**

Aurreneko paladak Hernanik, Oria ibaian

Estreinako estropadan, 14garren izan zen neska nagusien trainerua, eta 10garren mutil jubenilena.

HERNANI ARRAUNA

Martxan da Hernaniko neska nagusien trainerua, beste urte batez; eta larunbatean eman zituen aurreneko paladak estropada batean. Oriaren jaitsieran

aritu ziren, Orion, bi traineru hernaniar: neska absolutuena, eta mutil jubenilena.

Neska absolutuetan, 14garren izan zen Hernani, 20 traineruren artean. 15:12 denboran osatu zuen ibilbidea, eta Orio irabazleak baino 1:03 gehiago behar izan zuen.

Hernaniko mutil jubenilak, berriz, 10garren izan ziren, jubenilen eta talde mixtoen kategorian, azkeneko postuan. 15:43 denboran osatu zuten, Zumaia irabazleak baino 1:29 gehiago. **K**

Bera Bera estutu arren galdu, Hernanik

HERNANI BOLEIBOLA

Partidu gogorra zeukan Hernanik larunbatean, Pio Baroja kiroldegira egin baitzuen bisita, Bera Bera Euskal Ligako bigarren sailkatuaren kantzara. Eta talde donostiarra asko estutu zuen arren, galdu egin zuen azkenean, (3-1). Bi zati izan zituen partiduak. Irabazten hasi zen Hernani, aurreneko joko eskuratuta (18-25). Bigarrena ezin lehiatuagoa izan zen, makina bat desentpaterekin, baina donostiarren aldera erori zen (34-32), 40 minutuko lehiaren ondoren. Horrek indartu egin zuen talde donostiarra, eta ahuldu hernaniarra. Horrela, hurrengo bi jokoak eskuratu zituen Bera Berak (25-17 eta 25-15), partidua eskuratzeko.

Final laurdenetan da Aimar Olaizola

Azkeneko partidua jokatu aurretik zeukan pasea ziurtatuta, baina irabazi egin zuen, Urrutikoetxea lagun, Ezkurdia eta Martijaren kontra (22-14).

URUMEA PELOTA

Final laurdenetara pasea zeukan jokoan Aimar Olaizola goizuetarrak, Binakako Txapelketako ligaxkaren azkeneko jardunaldian; eta ondo egin zituen lanak, Urrutikoetxearekin batera,

Ezkurdia eta Martijari irabazita (22-14). Baina ordurako, ziurtatuta zeukan txartela, Irribarria eta Rezustaren porrotari esker. Orain, Artola eta Imazen kontra ariko dira, semifinalen bila.

Hernaniarren artean ere, izan da emaitza gozori: palaz,

Euskal Herriko Irekia txapelketaren semifinaletara sailkatu dira Garazi eta Olatz; eta eskuz, gauza bera lortu dute Gipuzkoako Trinketekoan, Arluziaga-Alegria, Manterola-Urdanpilleta, Mujika-Oiartzabal, Insausti II-Lasa, Arizmendi-Aldunberri eta Pagola-Alvarez bikoteek. Euskal Herriko Txapelketan, ordea, Lemoaren kontra galdu zuen Hernanik Zumarragan, final laurdenetan (1-2). **K**

ERRUGBIA

MUT. OHOR. MAILA	Hernani-Santboiana	24-27
NSK. EUSKAL LIGA	Landarbaso-Getxo	0-83
MUT. 23 URTEZ AZPITIK	Hernani-Santboiana	0-38
MUT. INFANTILAK (SUB 16)	Hernani Atletico-Gan Olympique	19-38
MUT. INFANTILAK (SUB 16)	Hernani Atletico-Durango	52-35

FUTBOLA

NSK. EUSKAL LIGA	Hernani-Eibar	1-1
MUT. OHOR. ERREG.	Zarautz-Hernani	2-2
NSK. OHOR. ERREG.	Arizmendi-Hernani	4-0
MUT. JUB. NAZIONALA	Vasconia-Hernani	3-1
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Trintxerpe-Mundarro	2-2
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Hernani-Vasconia	0-3
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Mundarro-Real Union	2-1
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Hondarribia-Hernani	4-1

BOLEIBOLA

MUT. EUSKAL LIGA	Bera Bera-Hernani	3-1
------------------	-------------------	-----

ERREMONTEA

1GO PARTIDUA	Matxin III-Arruarte/Seguro-la-Zubiri	35-32
2. PARTIDUA	Ezkurra II-Barreneetxea IV/Urriza-Azpiroz	36-40
3. PARTIDUA	Uterga-Zaldua/Juanenea-Larrañaga	37-40
4. PARTIDUA	Goikoetxea V-Aizpuru III/Aldabe-Labaka	20-30

PALA

NSK. EH. IREKIA 2. MAILA	Orozko/Garazi-Olatz	22-30
MUT. NAG. UDABERRI	Urdangarin-Ezkerra/Arandia-Garmendia	24-25
MUT. NAG. UDABERRI	Lizardi/Zurutza-Manterola	21-25
NSK. JUB. UDABERRI	Barreneetxea-Miner/Intxurre 2	30-23
NSK. JUB. UDABERRI	Alsua-Arruti/Intxurre 3	5-30

NSK. JUB. UDABERRI	Garmendia-Hernandez/Zumaia	10-30
--------------------	----------------------------	-------

ESKU PELOTA

MUT. BINAKAKO TXAP.	Olaizola II-Urrutikoetxea/Ezkurdia-Martija	22-14
MUT. NAG. EH TXAP.	Iñigo Urkizu/Lemoa	4-18
MUT. NAG. EH TXAP.	Ioritz Arrieta/Lemoa	18-15
MUT. NAG. EH TXAP.	Salaberria-Labaka/Lemoa	4-22
MUT. NAG. UDABERRI	Gazteleku/Salaberria-Ortiz de Urbina	22-11
MUT. NAG. UDABERRI	Altuna-Zugasti/Eple	22-4
MUT. JUB. UDABERRI	Uitzi-Insausti II/Tolosa	22-14
MUT. JUB. TRINKETEAN	Insausti II-Lasa/Oiarpe	40-10
MUT. KAD. UDABERRI	Jara-Etxarri/Gazteleku	17-22
MUT. KAD. UDABERRI	Gazteleku/Deskarga-Alegria	14-22
MUT. KAD. TRINKETEAN	Oiarpe/Alegria-Arluziaga	31-40
MUT. INFANTILAK	Iturbe-Elizazu/Zumaia	18-2
MUT. INFANTILAK	Aretxabaleta-Pascual/Azpeitia	3-18
MUT. INFANTILAK	Alberdi-Otaño/Alde Zaharra	9-18
MUT. ALEBINAK	Behar Zana/Arretxe-Alberdi	16-14
MUT. ALEBINAK	Gomez-Etxebarria/Kuku	10-16
PILOTAREN TXOKOA	Iglesias-Etxarri/Ituarte-Sorondo	14-22
ALMANDOZEKO TXAP.	Legarreta-Aiur Elizazu/Gazteleku	18-11
IRURITAKO TXAP.	Julen Deskarga-Elizegi/Zugarralde	18-3
MENDIALDEKO TXAP.	Aurrera/Sagardui-Lujanbio	18-9
MENDIALDEKO TXAP.	Alsua-Aranberri/Zurutza-Garmendia	18-12
MENDIALDEKO TXAP.	Arregi-Legarreta/Dorronsoro-Galarza	6-18
MENDIALDEKO TXAP.	Ugartemendia-Apezetxea/Sagardui-Lujanbio	18-0
MENDIALDEKO TXAP.	Aurrera/Aranberri-Narbate	18-3
MENDIALDEKO TXAP.	Aurrera/Seges-Larin	12-18
MENDIALDEKO TXAP.	Aurrera/Salaberria-Ruiz	18-6

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOA

ANDRE KALEA, 11 · HERNANI
943 555 724

Berrikuntza: ostiral eguerdian irekita enkarguz

EULA

Kalitate handiko 4.600 sagarrondo
Tolare sagardotegia
Asteazkenetik larunbatera gauzez
Ostiral, larunbat eta igandean eguerdian ere bai Berogailua

LATEGI AUZOA, 19. URNIETA
Hernaniko Portu auzotik 5 minututara

943 55 27 44
www.eulasagardotegia.com